

# PIL-PILEan

## Egunkaria **libre!**



Munduan libre  
bizi ahal izateko  
**egunkaria libre**  
munduan bizi  
ahal izateko

eeeil! erne!  
kalean da!

Udaletxean  
eskuragarri

EUSKARAZKO PRODUKTUEN  
**katalogoa**  
2009-2010

musika  
filmak aldizkariak  
komikiak liburuak  
gurasoentzako  
materiala  
informatika  
jostailu eta  
jokoak

Interneten ere bai!!!  
Azken orduko  
produktu guztiak!

[www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)  
[info@katalogoa.org](mailto:info@katalogoa.org)

Soraluzeko atarixa

Eguneko barrixa, eguneko  
argazkixak, bideuak, herritarren blogak,  
eztabaida gunia, agenda, pil-pilean aldizkari  
danak, mediateka, loturak, eta gehiago...

Sartu SARIAN eta HARTU parte!!!

[www.plaentxia.com](http://www.plaentxia.com)

HERRITARREN BLOGAK ALBISTEAK PIL-PILEAN MEDIATEKA AGENDA

Bilatu atal denetan

Hemen zaudē • Azal-orrta • Albisteak • Kultura • Musika eskolak Santa Zeziliarekin hasiko ditu XX. urteurreneko ospakizunak

**Musika eskolak Santa Zeziliarekin hasiko ditu XX. urteurreneko ospakizunak**

plaentxia.com  
2009-11-19 13:47

Kukumixok umeendako jolasak egingo ditu herriko frontoian. Gero, bazkari herrikola eta disko festa egingo da.

...ta Zezilia eguna da, musikarien patroia. Aurten ...sua da herriko musika eskolarendako, hogei ...harira, zapatu honetan, Santa Zezilia ...ko "Santa Zezilia festa" egingo

**Azken komentarioak**

**Gaizki gabiltza**  
Zerbait ez, gauza aski dihardugu gaizki. Gi

**Txerrosaren kalte**  
Kataluniako mer emakume hor

**hainbestera**  
hainbestera lehen es

**Norab**  
Jaiat  
No

**lolasat**

**EGOITZ UNAMUNO****ARITZ ARIZAGA**

## TOK, TOK! KULTURA ATE JOKA

**A**steburu ona pasatu dok? Bajakixat pe-  
lotako finalian egon hintzala. Kabroia!  
Lehenengo ilaran gainera!

Ni etxe inguruan ibili nok ba. Barixaku  
gabian “Ate joka!” antzerkixa ikustera juan  
nintzuan, zinera. Banajaukan gogua euske-  
razko antzerki-lan bat ikusteko  
beste plazentziatar mordo batekin  
batera. Egixa dok ez daguala be-  
saulki koltxoidunik baina ni gertu  
najauan etxetik neure kanpineko  
aulkixa eruateko be.

Edarra izan zuan, aspaldiko par-  
tez herritar pila galanta elkarren  
onduan ikustia zine barruan, ba-  
rrez eta txaloka. Oin urte batzuk “*Maritxu  
nora zoaz!*” etorri zanequia najaukan goguan.  
Egixa esateko ziniakin emozionauta najauan  
eta najaok. Iluntasuna eta ixiltasuna auke-  
ran daukan lokal horrek gauza be-  
rri asko antolatzeiko aukeria dakar  
eta garrantzitsuagua dana, “*herri-  
xa*” bertan batzeiko aukeria emon-  
go jok.

Kulturgilien koordinazio eta  
komunikaziñorako “*Kulturaren  
Mahaixa*” sortu juek/ juau. Espe-  
rantzia jakat mahai horretan jente  
asko jarriko dala (*hango, hemengo, lehengo  
eta oingo*) eta pauso senduak emongo dittugu-  
la, kulturgile eta herritarren ekinarekin eta  
Udalan laguntzarekin, bihar dan zabaltasun,  
ganora eta indarrakin...

Hik ze diñok artista? Seguru ez hagu-  
la hain optimista... 🐞

“

**Egixa esateko  
ziniakin  
emozionauta  
najauan eta najaok**

Egoitz Unamuno

**Ziniaz ze kontauko  
dostat ba? Pozik  
najaok neu be,  
bazan ordua!**

Aritz Arizaga

”

**E**guerdi on!

Asteburu dotoria euki juat. Lau egun  
jai, ezingo nok kejau. Mendira juatekuak izan  
ginttuan, baina azkenerako egualdixak ez  
juan bape lagundu. Donostiako Atano III.ian  
lau t’erdiko txapelketako final dotoria ikusten  
izan nintzan. Edarra Gonzalezek  
emon eban ikuskizuna! Irujok ez  
irabazi, eta ni pozik! *Iparralderat*  
eramandako lelengo lau t’erdiko  
txapela. Asteburu konpleto doto-  
ria izan dok!

Ziniaz ze kontauko dostat ba?  
Pozik najaok neu be, bazan or-  
dua!

Barixaku gabian ni be izan nintzuan han,  
eta barre egitteko aukeria egon zuan Goenka-  
leko aktore famoso horren kontura, bai jauna!  
Bertaratu giñanok, bai zine berrixa ikustera,  
bai antzerkixaz gozatzer, ederto  
pasatzeko aukeria eduki giñan.  
Nik ez juat “*Maritxu nora zoaz!*”  
horren akordurik. Asko jota, “*Ti-  
tanic*” pelikulia ikustiana eta mu-  
sika eskolako kontzerturen batena  
edo.

Zinia zabaldu juek, baina oin  
hori bete egin bihar dok. Etxuau  
hutsik jauan zinerik nahi, ze hortarako ezebe-  
za hobe. Jentia bertara gerturatzeko, ganoraz-  
ko ekintzak antolatu biharko jittuek. Bajaok  
egitteko lanik!

Amaitzeko, tarte hau aprobe txau bihar juat  
jentia animatzeko zine berrixa ezagutzera,  
bertan, tokatzen danaz gozatzer eta aipatu-  
tako mahai-inguru hortan parte hartzeko.  
Gabon onak pasatu danok! 🐞

Goguan hartzeko

**“Ederra eta galanta, ona eta aberatsa biak leku baten nekez da billatzen”**

Gotzon Garate, Euskal Atsotitzak





## GUTUNAK

**Euskal  
Gazteria  
Aurrera!**

**Atxilotuak  
Askatu!**

Azken urteetako erasorik bortitzenetakoa sufritu dugu Segiko militanteok, gure 32 kide espetxeratu, beste batzuen bila joan eta dozenaka miaketa burutu dituzte. Azken urteetan hamar operazioetan 87 gazte atxilotu, 40 gazte torturatu eta 62 espetxeratuak izan dira gure kontra eraman duten dinamika errepresiboen ondorioz. Kolpatu dituzten ehunka gazte borrokalariak ahaztu gabe.

Ez da euskal gazteriak pairatzen duen lehenengo eraso, nahiz eta min ematen diguten, argi izan behar dugu independentziaren alde lanean jarraitzea dela erantzunik onena. Atxilotuak, torturatuak, espetxeratuak eta terroristatzat izendatzen gaituzten arren ezin izango gaituzte beldurtu, ez dugulako ezer galtzeko eta Euskal Herria irabaztera goazelako.

Orain Segi-koak izatea da gure delitua, terroristak? Non daude armak terroristak izateko: D3M-ko zerrendetan aurkeztea, manifestazio baten aurrealdean joatea, pintadak egitea, eskuorriak banatzea, presoek babesa ematea, jaietan Segi-ko txosnan txanda egitea, kartelak eta pegatinak pegatzea... Hauek dira terrorista izendatzeko eta inkomunikatzeko arrazoiak.

**Plaentzia  
Reginarekin**

**2003**ko otsaila eta 2005eko maiatza bitartean 116 euskal herritar atxilotu zituzten, Soraluzeke Regina Maiztegi eta Eibarko Mikel Garaiondo bailarako herritarrak kasu. Abenduaren 9tik Madrilan epaitzen ari diren beste 11 euskaldunekin batera.

Frankismo garaietan bezala, ideia eta jardute politiko publiko hutsagatik euskal herritarrak jazartuak dira. 1998. urtetik hona erasoaldi ugari eta larriak burutu dira Madrilgo Auzitegi Nazionalaren eskutik. Euskal Herriko hainbat antolakunde politikoen ilegalizazioek, makro operazio eta sarekadek, komunikabideen itxierak, ekitaldi zein manifestaldien debekuek... agerian uzten dute Espainiar Estatuaren izaera ez demokratikoa.

Disidentzia politikoaren aurka denak balio duen garaiotan, Auzitegi Nazionala da Espainiak azken urteetan erabili duen zapalkuntza tresna nagusietako bat. Arrazoen aurrean entzungor egiten duen gerra tribunal hau baita, inolako frogarik gabe, euskal herritarrak atxilotu, torturatu eta urte luzeetara kondenatu ahal izateko fartsari forma juridikoa

Gogor salatu nahi ditugu inkomunikazio egoeran gazteek salatutako torturak: Plastikozko poltsa buruan jarri arnasarik gabe gelditu arte, etengabe kolpeak, presio psikologikoak, pistola buruan jarriz edo xiringa bat sartuz, drogatzeo mehatxuak egin, ariketa fisikoak egitera behartu... Emakumeen kasuan berriz, kuleroetan utzi, gerritik gorako ukituak, muxuak, heriotza eta bortxaketa simulazioak...

Gertuko zein urruneko komunikabideek, bertsio ofiziala indartzeko asmatuak gezurrak publikatzen dituzten bitartean, alderdi politikoetako ordezkariak zilegi ikusten dituzte Moncloa diseinaturiko muntaia polizialak, baita torturaren erabilera ere. Guzti honen arduradunak Soraluzeke udalean duen ordezkariarentzat inkomunikazio aldian jasaten duten tratu lazarria baino larriagoa da norbere etxepean egoera hori salatzeo egindako margoketak aurkitzea.

30 urtean ezin izan duzue eta ezin izango duzue euskal gazteria gelditu!

**SORALUZEKE SEGI**

ematen dion tresna errepresiboa. Auzitegi Nazionala da egun Euskal Herrian ezarria zaigun salbuespen egoeraren irudirik gordinetakoa.

Espainia etenik gabe errepresioaren azeleragailua zapaltzen arin den honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da euskal herritarrok gure eskubide indibidual eta kolektiboen defentsan errepresioaren aurrean tinko agertzea. Aski da! ozen esateko garaia da. Estrategia anker honen arduradun nagusi diren Ares, Rubalcaba eta enparauek jakin dezatela herri bat dutela parean.

Ekimenak:

-Abenduak 12 Manifa 19:30ean Plaza Barrittik

-Abenduak 14 Autobusa Madrilera

-Abenduak 17 Epaiketa amaiera

Batzar informatiboa 19:30ean Plazan

Epaiketa politikorik ez! Torturarik ez! Auzitegi Nazionala itxi!

**SORALUZEKE AMNISTIAREN  
ALDEKO MUGIMENDUA**

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**pil-pilean**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZEKE  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Gaizka Azkarate

## Plaentxitik kapitalera

**B**atxillergua bukatu dot eta unibersidadera begira jarri naiz, gustatzen jatazen karrerren nundik norakuak inbestigatu eta ikastera nora jungo naizen pentsatzen ipini. Hasiara batian garbi neukan Gasteizera juango nintzala ikastera, baina hor hasi ziran nere planak pixkat aldatzen. Nik banekixan batxillerguan ez nebala demaseko mailia emon eta unibersidadian sartzeko notak ikustian konturatu nintzan nahi nebana egitteko nere aukera bakarra kanpora juatia zala. LEON KAPITAL. Begiratzen ibili eta gero aukerarik onena Euskal Herriatik Leonerañoko bidia egittia zala konturatu nintzan eta pare bat buelta emon eta gero erabakixa hartu neban: Abenturara. Pasatu dira hiru hillabete kapitalian gora eta behera nabilenetik eta egixa esan merezi izan dau hona etortziak. Nahiz eta egixa dan Plaentxiako lagunak, familia, Plaentxia bera eta beste gauza asko faltan botatzen dirala. Baina bueno, hala eta be, penak alde batera lagata, aukeria euki ezkerio maletia egin eta animatu bizitzako abenturarik onenarikua izango dana has-tera.

## ((ENTZUTEKUAK))

## Alberto Ramirez, artista

**A**lberto Ramirez 49 urteko Sevillarra da. 1962. urtian etorri zan gurasuekin batera Plazentziara bizi izatera eta ordutik bizi da herrixan. Hagin protesikua da ofizioz, baina artista afiziñoz. Otsailian zabaldu zeban Gabolats kaleko Oreka Art aretua.

## Artiakiko zaletasuna noiztik eta nundik datorkizu?

Jaio nintzanetik dakat artiakiko sen berezi bat. 5 edo 6 urtekin egin neban nere lehen artelana eta urtiekin artia maitatzen eta errespetatzen ikasi dot, nere abileziak garatziakin batera.

## Zer lantzen dozu?

Pinttura eta eskultura jorratzen daben artian zentratu naiz. Bi modalitate honek baina, beste hainbat konbinaziño egitteko aukeria be emon doste; brontzia lantzia edo burdinia forjatzia esaterako. Danak gero, eskultura baten landuta. Neronek pinttatutako kuadrak be asko dittut.

## Zenbat urte honetan?

Uff...bizitza oso bat eskaini dotsat artiarri eta uste dot hil arte artia maitteminduta jarraituko dotela. Artia pasinua da, barru-barruan sentitzen dana. Laster, urtebete beteko da Oreka Art aretua zabaldu nebala herrixan eta izugarria izan da.

## Eta zerk bultzatu zintuan aretua zabaltzera?

Ba benetako pasinuak. Egixa esan, hasiera baten Oreka Art nere lanak gordetzeko biltegia izan bihar zan. Gero okurridu jatan erakusketa gela moduan zabaltzia. Izugarria da urtebete baten 5 erakusketa ezberdin herrira zabaltzia. Aretuan erakutsi dittugun lanak gainera, artista eza-gunak egindakuak dira eta Barzelonan, Bilbon, New Yorken eta beste hainbat lekutan jarri dittue ikusgai. Hau sekulako pagotxa da herri txiki batentzat!



## Primiziarik?

Gaur Jesus Txurruka solaruzetarraren erakusketa zabalduko dogu arratsaldeko 19:00etan. Hemendik gutxira POP-ART teknikia lantzen daben erakusketa bat ikusteko aukeria egongo da, Manterolak be bere lanak erakutsiko dittu, Keixetak, Elorzak eta Iñigo Arregik be bai, beste batzuen artian.


## Gustoko dozun obra bat?

Nere komunian, "Alegoria de Venus y Cupido" Bronzinoren artelana dakat ipinitta, 1500. urte ingurukua.

## Eta artista bat?

Robert eta Sonia Delaunay.

## Artia lantzeko leku bat?

El cabo de Ajo (Kantabria). 

*"Pinttura eta eskultura jorratzen daben artian zentratu naiz"*

**ELIZPE** Hortz Klinika  
GURE ZERBITZUAK  
Ortodontzia ikustezina  
Implanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

  
Mutua General de Seguros

**Loli Nieves García**

Santa Ana, 13 • SORALUZE  
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659  
E-maila: mdnievas@mgs.es





# Txistorra jana eta zozketa Itxaropenan

Hilaren 17an, Itxaropena Jubilatuena Elkarteak bazkideek, arratsaldeko 17:30ean txistorra jana izango dute eta ondoren, Gabonetako 30 saski zozketatuko dituzte. Juntakoan esanetan, jarraian dantzaldia ere egongo da.

## 80 urtetik goragokoekin bazkaria

Azaroaren 28an, urteroko ohi-turarekin jarraituz, 80 edo urte gehiago dituztenei omenaldia egiteko antolatzen bazkarian, ehun lagun bildu ziren Itxaropena jubilatuena elkartean. Bazkaldu ondoren, Juanita Aseginolasa (96 urte) eta Eugenio Gabilondo (91 urte) omendu zituzten. Jarraian dantzaldia egin zen. ☞



Iturria: Nerea Izasti

## Bi soraluzetar eta azkoitiar batek istripua izan zuten Maltzaga parean

Abenduaren 3an, eguerdiko 13:20an N-634 errepidean, Opel Astra batek eta Opel Movano batek elkarren aurka talka egin zuten. Opel Astran bi plaentxiatar eta azkoitiar bat zihozen. Bidaiarietako bik (20 urteko A.M.F. azkoitiarra, eta 18 urteko J.P.I. soraluzetarra) zauriak jasan zituzten eta Mendaroko Ospitalera eraman behar izan zituzten. Hirugarrena, 18 urteko I.P.C. izeneko soraluzetarra, zauri larriekin Donostiako Ospitalera eraman zuten, zainketa berezien gelara eta jadanik, zainketa berezien gelatik kanpo dago.

## KZguneak bost e-book zozketatuko ditu

Gabonak iritsi dira Euskal Herriko KZguneetara, baita Soraluzeko KZgunera ere. Olentzerori eskutitz bat idazten diotenen artean, guztira, bost e-book edo liburu elektronikoko zozketatuko dituzte. Horretarako, KZguneako erabiltzailea izan behar da eta adin nagusikoa. Haurrak adin nagusiko baten laguntzarekin ere aurkeztu daitezke. Eskutitzak bidaltzeko epea abenduaren 22an amaitzen da eta helbide honetara idatzi behar da: Baltegieta 18, behea.

## Abenduko ordutegia:

Aitor Madrid, Soraluzeko KZguneako arduradunak jakinarazi duenez, abenduaren 3an, 10ean, eta 17an bisitatuko du KZgunea, goizeko 9:00etatik 13:00ra bitartean.

## Atxolingo jaiotza ipinita

Abenduaren 8a jai eguna zela aprobeztatuz, herriko hainbat lagunek urteroko ohi-turari jarraituz, Atxolingo jaiotza ipini zuten.

Errege Eguna pasatu ondoren kenduko dute eta herritarrek gonbidatu nahi dituzte Atxolingera buelta egin eta jaiotza ikustera.



Iturria: Mikel Valero

**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Soraluze  
T. 943 75 12 49

*Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu*

**SEGURTASUNA**

**GILTZAK, S.L.**  
SARRAILAGINTZA

- Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen **salmenta** eta **mantenua**
- Segurtasun eta iheserako **instalakuntzak**
- Sarrailen **egokipenak**
- Era guztietako giltzen **kopiak**
- Trabatutako atekak **askatzen** ditugu

Arragueta 3  
20600 EIBAR  
GIPIZKOA  
T. 943 70 13 91  
F. 943 20 86 99  
giltzak@giltzak.com  
www.giltzak.com

**8.00etatik 24.00ak**  
**larrialdiko zerbitzuak**  
**943 70 13 91**

### Hasi da Regina Maiztegi soraluzetarraren kontrako epaiketa

Madrilgo Auzitegi Nazionalan hasi da Regina Maiztegi soraluzetarra eta beste hamabi euskaldunen kontrako epaiketa. Fiskaltzak sei eta hamar urteko kartzela zigorra eskatzen du, ETA-ko kide izan edo berarekin kolaboratzea leporatuta. Epaietako datoren astelehenean jarraituko du Madrilan.

### Euskararen Nazioarteko Eguna ekitaldiz beteta

Egun honen harira ikastetxeko gaztetxoek "Nik euskaraz!" murala pintatu zuten. Eguerdian udaletxeko balkoitik euskal musika entzuteko aukera egon zen. Abenduaren 4an, umeendako txotxongilo ikuskizuna izan zen kiroldegian.

### Udala azkenengoz bilduko da auzotarrekin

Auzo bakoitzak dauzkan premia eta beharrak zeintzuk diren jakiteko, azaroan hasi zen Udala herriko auzo ezberdineko bizilagunekin bilerak egiten. Hurrengo bileren datak honak dira:

- **Abenduak 15:** Baltegieta, Errabal
- **Abenduak 17:** Atxuri, Errekalde
- **Abenduak 22:** Gipuzkoako etorbi-dea, Serafi Atxotegi

Bilera guztiak arratsaldeko 19:00etan izango dira, udaletxeko saio aretoan.

### Misio taldeak 3453 euro lortu ditu

Gaztañerre azokako postuan 3453 euro lortu zituen Haitiko nutrizio zentru bati laguntzeko. Diru horrekin oinarritzko elikagaiak eta haitiarren autogestioa garatzeko azpiegiturak erosiko dituzte.

# Berdintasun Plana aho batez onartu zen azken Udalbatzarrean

Hilaren 2ko Udalbatzarrean 2010. urterako Ordenantza Fiskalen aldaketak onartu egin ziren aldeko 5 botu (*Gobernu Taldea*), 4 abstentzio (*PNV-EAJ, PP*)

eta bi kontrakorekin (*PSE-EE*). Eguneko gai garrantzitsuenetarikoa, Berdintasun Plana, aldeko 11 boturekin onartu zen.

## Hainbat mozio aurkeztu ziren

### Gobernu Taldeak Kiroldegi gaineko obren inguruko mozioa:

Udal Gobernu Taldeak kiroldegi gaineko obren gaineko mozioa aurkeztu zuen "egoerahoni irtenbidealehen bailehen emateko, es-talki berria egin eta erabilera aintzeko gunea egiteko". Aldeko 11 boturekin aho batez onartu zen.


### Gazte mugimenduaren kontrako eraso errepresiboaren gainean:

Udal Gobernu Taldeak, Grande Marlaskak agindutako 34 gazteren atxiloketen gaineko mozioa onartu egin zen, aldeko 5 botu (*Udal Gobernu Taldea*), 3 abstentzio (*PNV-EAJ*) eta kontrako 3 boturekin (*PP, PSE-EE*).

### PNV-EAJ, PSE-EE, PP alderdien mozioa, trafikoaren norantza berrezartzeko:

Trafikoa berrezartzeko aurkeztutako mozioa mahai gainean gelditu geratu zen Udal Gobernu Taldeak hala eskatuta, "egun gutxi pasatu direlako eta benetako eragina ikustear dagoelako". PSE-EEK ere mahai gainean lagatzearen alde egin zuen. PNV-EAJk orduan, euren postura berriz aztertu eta hausnarketarako denbora utziko dutela esan zuen.

### EHGAMen mozioa, Benedikto XVI.a Aita Santuaren adierazpenen gainean:

Udal Gobernu Taldeak EHGAMen mozioa aurkeztu zuen, Aita Santuak HIESaren prebentzioaren gainean egindako adierazpenen harira. Aldeko 10 botu eta PPren kontrako boto bakarrarekin onartu egin zen mozioa. 

Joan den abenduaren 2ko Udalbatzarra.



**BERTSOLARI**  
TXAPELKETA NAGUSIA  
www.txapelketanagusia.eu



Autobusa  
Soraluzetik!  
08:10ean Gilatik



# Zazpi urteren ostean, Egunkaria auzitara

Egunkariaren itxiera salatzeko Donostiako manifestazioa.

**2003ko otsailean euskaraz argitaratutako egunkari bakarra itxi zuten. Orain, zazpi urteren ostean, hamar auzipetuk epaiketa izango dute; batzuei 20 urtetik gorako espetxe zigorra eskatzen die akusazio partikularrak.**

**H**emeretzi urtez albisteak euskara hutsean eta egunero eskaini zituen Euskaldunon Egunkariak, euskal kazetaritzaren iturri freskoa 2003an itxia zuten arte. Fiskalak kasua artxibatzeke eskatu duen arren, epaiketa datorren abenduaren 15ean hasiko da AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioek sostengatuta.

## Soraluzetarren babesa

Itxi zutenean, herriak segituan erakutsi zuen Euskaldunon Egunkariarekiko elkartasuna. Kazeta itxi eta berehala, Berria egunkaria sortzeko akzio eta material salmenta hasi zen. Bonoak, pi-

nak, kamisetak eta beste salduz 12.000 euro lortzeko helburua ipini zuten herrian eta baita lortu ere. Partaidetza handia izan zen, esate baterako, euskalgintzako taldeek, elkarte eta enpresek, kuadrillek, irakasleek eta abarrek 300 euroko akzioak erosi zituzten. Orain herriko euskalgintzak epaiketaren aurka egiteko berriro batu nahi ditu herriarrak, auzipetuei babesa emateko. [GA](#)

## EGUNKARIAREN ALDEKO EKIMENAK SORALUZEN

- BONOAK eta kamisetak salgai (epaiketako gastuetarako) Pil-pilean, Iratxo goxodendan eta Mendizabal okindegian.

### Abenduaren 17an, eguena

- BIDEO-EMANALDIA eta tertulia 19:00etan, Zinean

### Abenduaren 19an, zapatua

- KANTU-JIRA epaiketaren aurka 12:30ean Plaza Barritik hasita (musikariz lagunduta)
- ARGAZKI JENDETSUA "Egunkaria libre!" lemapean 13:30ean Plaza Barrian
- AUTOBUSA Bilboko manifestaziora 15:30ean Gilatik



### Antolatzailea:

Soraluzeko Euskalgintza (Pil-pilean Euskara Elkarte, Euskal Herrian Euskaraz eta AEK)

Denok gara

Euskaldunon  
**Egunkaria**



# Soraluzeko kazetariak Egunkaria kasuz

- 1 Kazetarixen artian berba egiten da Euskaldunon Egunkarixan kasuz?
- 2 Epaiketian inguruan ze iritzi daukazu?
- 3 Gizartian babesa zenbateraino pentsatzen jatzu garrantzitsua?

## ELENE ALBERDI, Eitb.com-eko Gaztea eta Betizu atarrietako arduraduna



- 1 Egunkaria ixtia gertaera lazgarria izan zan euskal kazetaritzandako eta gizartiadako. XIX. mendian komunikabide bat ixtia oso gertakari larria da "Zuzenbidezko Estatu" baten.
- 2 Egunkaria eta ETA lotziak ez dauka ez buru eta ez hankarik. Komunikabide bat ixtiak sortu zeban zalapartia ezerezian geratu ez dein aitzakixa bila dabiz, eta AVTK eta Dignidad y Justicia elkartiak emon dotse horretarako aukeria.
- 3 Herritarren babesa funtsezkoa da. Gizarteko arlo askotako talde eta eragiliak gogor gaitzetsi dabe gertatutakua. Herritar askon deiadarrakin bat egin deigun ba, "Egunkaria libre!" lau haizetara aldarrikatuz!



## LOIOLA ALTUNA, ETBko kirol erredaktoria




- 1 Auziak luze jo dau eta denboria aurrera jua ahala, gero eta gutxiago, noski. Dana dala, Egunkarian auzixan inguruan barriren bat gertatzen danian danok ditugu belarrixak tente.
- 2 Neri kasurik ez daguala iruditzen jata. Batek daki zer gertatu leiken. Momentuko egoera politikuak zeresan haundixa izango dau, auziperatutakuak kondenatzeko arrazoirik ez izan arren.
- 3 Auziperatuari babesa erakustia garrantzitsua da, urratutako eskubidien aldeko borrokan jarraitzeko eta Gobernuak gobernatutakuen eskubidiak bermatzeko darella gogoratzeko eta ez alderantziz.



## NEREA ISASTI, Diario Vasco Soraluzeko berriemailia eta Eibar KEko prentsa arduraduna



- 1 Lanian, komunikabidien arabera. Nik lan egiten doten komunikabidian argi dago gai honen aurrian euren jarrera zein dan. Orokorrian lagunekin eta ezagunekin beste kazetari batzuk baino gehiago.
- 2 Bidegabekerixa eta pantomima hutsa dala uste dot. Prentsa askatasunan alde nago eta informaziño eskubidian alde. Gertatuko danan gainian, ez naiz bape baikorra. Ez da kasu honetan justiziarik egongo.
- 3 Gizartian babesa oso garrantzitsua eta biharrezkoa da. Nik neuk herrixan zati haundi baten babesa jaso neban oin dala pare bat urte eta ez dot inoiz ahaztuko. Asko laguntzen dau.



## GOTZON ELIZBURU, Kazetaritza ikaslea



- 1 Berba egiten da, baina ez gehixegi. Fakultatian ez dogu sekula serixo berba egin kontuaz, EHUK berak be ez dau ganorazko ezer egin Egunkarian alde.
- 2 Astakerixia da. Euskalgintza epaitzia nahi dabe epaiketa honekin, herri mugimenduak urtietan euskerian alde egin daben lana. Auziperatuek kartzela zigorra bete biharko dabela pentsatzen jata.
- 3 Babesa ezinbestekua da auziperatuek eurek herrixan babesa daukela ikusteko eta bestetik estatuari zilegitasuna kentzeko, etorkizunian halako gehixago gertatu ez dedin.



## UBANE MADERA, Goiena Komunikazio Zerbitzuetako kazetarixa eta Arrasate Irratiko arduraduna



- 1 Jakina, kezka haundixakin ikusten dogu. Kazetarixak ez ezik, euskaldunak garalako. Horretarako aitzakixa indartsu baten biharrian lotu zittuen ETAKin.
- 2 Baikor egoteko arrazoi txiki bi be badare: Estatuako fiskalak karguak erretiratu izana bata eta inputatuen abokatuak eurak itxaropentsu darella bestia.
- 3 Garrantzitsua ez, ezinbestekua pentsatzen jata. Inputatuak eurak be behin baino gehixagotan esan dabe konbentzitura darella Donostian oin dala zazpi urte egin zan manifestaziño hark beste eraso batzuk geldiarazi zittuala. 🌱



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Zazpi urte jua dira Euskaldunon Egunkaria itxi zebenetik. Datorren abenduaren 15ian hasiko da epaiketia eta hamalauna urteko espetxe zigorra eskatu dabe bost akusatueendako.

## Ze iritziz daukazu Egunkaria auzixaz?

**AINHOA GALARRAGA**  
Apaintzailia



**BITTOR TREBIÑO**  
Irakaskuntzako bihargina



**UNAI TXURRUKA**  
Ikaslia



**MARIA ISABEL ALARZIA**  
Garbitzailia



**I**kusten da fundamentez bareko justizia dala. Horrek erakusten dau edozein aitzakixakin itxi leikela egunkari bat. Euskal kultura, euskera eta mugimendu independentista guztien kontra darenak edozer lortzen dabela.

**O**so txarto pentsatzen jata Egunkariak jasan bihar izan dabena; langiliak torturatu izana ze esanik ez. Euskal prentsak ondio urrats dexente emon biharko dittu Estatuan onarpena jasotzeko.

**T**xarto. Uste dot epaiketia bertan behera laga biharko litzakela. Espainiako eskuin muturrak euskal kultura ezabatzeko dana dau zilegi. Egunkarian antzera, beste hainbeste makrosumario dare Euskal Herrixan kontra. Zilegitasunik ez dotsat emoten Auzitegi Nazionalari.

**G**ehiegikerixia pentsatzen jata, izugarrixa. Nahiz nik ez doten euskera ikastia lortu, beti saiatzen naiz euskeraz irakurri eta berba egitten. Euskaldunon Egunkaria sekula ez zan itxi bihar. Euskerian kontra bete-betian dare eta ia ez dakixe ze egin.

### KOMIKIXA



**TXOKO KAFETEGIA** 

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soralue. T. 943 75 17

**Belarrak** 

**Loradenda eta belardenda**

T. 943 75 30 11



### “Marica de playa” gaur Zinean

Patxi Perezek eta Mila Espigak antzeztutako “Marica de playa” lana estreinatuko da gaur gabeko 22:15etan Kiroldegiko Zinean. Hurrengo lana, “Digaselo con valium”, abenduaren 18an izango da gaueko 22:15ean Zinean. Azken antzeztan hau, Udaleko Berdintasun Sailak antolatatu du.

### Berto Txapelketa Nagusirako autobusa

Domeka honetan, hilak 13, jokatuko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako Finala eta dagoeneko sarrera guztiak agortu dira. Arduradunek jakinarazi dute autobus zerbitzua egongo dela. Autobusa goizeko 08:10etan irtengo da Gilako zubitik.

### Kulturaren Mahaia lehenetsunak markatzen

Abenduaren 2an batu ziren herriko kulturagileak Kulturaren Mahaia lehenengoz. Herrian dagoen aberastasun kultural handia antolatzea eta baliabidez hornitzea izango da bilgune honen lehenetsunetako bat; taldeentzako lokalak eta kultur ekitaldien promozioa egitea, esaterako. Herriarrei asmo eta ekimenen berri ematea ezinbestekotzat jo dute.


### Datorren bilera


Hurrengo bilera abenduaren 14ean izango da, iluntzeko 19:00etan Zinean. Bilerotan jasotakoarekin 2010eko Kultura Saileko aurrekontua adostuko duela adierazi du Udalak.



# “Karakolaren gaua” antzeztanarekin hasiko da Hamabostaldi Kulturala Gaztetxean

Iaz egin ez bazuten ere, urterotantolatu izan dute Hamabostaldi Kulturala Gaztetxeok. Aurten, hilaren 18an hasiko da aipatutako egitaraua eta hilabetez hitzaldiak, bideo emanaldiak, bazkariak, txangoak, kontzertuak, tailerrak eta beste izan-

go dira. Herriko sortzaileen lanak ikusteko aukera izango da, baita argazkilari soraluzetarrena ere. 



## Abenduko Egitaraua:

### 18an

22:30ean

Antzerkia: “Karakolaren gaua”

### 19an

11:30ean

Mahai-ingurua: “Drogas, salud mental y luchas anticapitalistas”

14:30ean

- Ondoren bazkaria,
- Gero danok manifara: “Egunkaria Libre!”

### 21etik-urtarrilaren 3ra

Herriko argazkilarien erakusketa

### 25ean

18:30ean

Pelikula: “La vida de Bryan”

### 26an

22:00etan

Kontzertuak:

- Insolventes (Punk-rock, Durangotik)
- Lindane (Punk-HC, Ermuatik)

### 27an

10:30ean

Makrobiotikako oinarrizko menua Ondoren, parte hartzaileen bazkaria

### 28an

17:30ean postriak

### 29 eta 30ean

19:00etan Antzerki tailerra

### 31n

DJ festa 00:00etatik-4:00etara

(Urtarrileko egitaraua datorren alean argitaratuko dugu)




### Egaña eta Lizaso San Andresen bertsotan

Andoni Egaña eta Lizaso izan ziren hilaren 28an San Andres auzoko bertso afarian. Aurretik baina sokatiran apustua egin zuten auzoko andren aurka. Afari goxo eta bertso saioaz gozatzeaz gain, Laja trikitilariaren doinuekin ere kantuan jardun zuten elkartera hurreratu zirenek.

# Bi soraluzetar izan ziren Donostiako Nazioarteko 32. maratoian

Azaroaren 29an jokatu zen urtero egiten den Donostiako Nazioarteko maratoiaren hogeita hamabigarren edizioa. Guztira 2402 parte hartzaile heldu ziren helmugara. Soraluzetik bi korrikalarik hartu zuten parte. Emakumezkoetan Ane Mendiak

lehiatu zuen eta emakumezkoen sailkapenean 35. postua eskuratzeari lortu zuen, sailkapen orokorrean 1575. postua. Iñaki Ruiz izan zen gizonezkoetan herriko parte hartzaile bakarra eta 2238. postuan iritsi zen helmugara. 

## Sailkapen orokorra:

Postua	Parte hartzailea	Maratoi erdia	Helmugara
1575	Ane Mendia	1:45:32	03:34:01
2238	Iñaki Ruiz	1:58:34	04:05:04

## Mendi taldeak federatu lizentziak berritzen dihardu

2010 erako federatu lizentziak egiteko epea zabalik dago dagoeneko. Mendi Taldea eguenetan batzen da bere bulegoan (*Pil-pilean Euskara Elkartearenean*) eta datorren urteko federatu lizentzia egin nahi duenak bertara jo beharko du ordutegi honetan: eguena, iluntzeko 19:30etatik 20:30era bi-

tartean. Pasatzerik ez duenak, [soraluzekomenditaldea@gmail.com](mailto:soraluzekomenditaldea@gmail.com) helbidera mezu bat bidal dezake edo ordutegi horretan **943 75 13 04** telefonora deitu. 

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Zumaiako – Sora (Erreg.) ..... 1-0  
 Arizmendi – Sora (Jub) ..... 1-6  
 Sora (Kad.) – Ilintxa ..... 1-6  
 Sora (Jub.) – Urola ..... 1-2  
 Mutriku Txiki – Sora (Kad.) ..... 5-5  
 Erreg. ez zuten partidarik jokatu

### PELOTA

Titin III – Laskurain ..... 22  
 Berasaluze IX – Zubieta ..... 8

Olaizola II – Peñagarikano ..... 22  
 Xala – Laskurain ..... 21

## AGENDA

### FUTBOLA

Zapatua 12, 16:00etan Estalan  
 Sora (Erreg.) – Getariako Keta F.T.

Zapatua 12, 18:30ean Errotazarren  
 Amaika Bat F.T. – Sora (Jub.)

Domeka 13, 11:00etan Estalan  
 Sora (Kad.) – Anaitasuna F.T.

### Xake txapelketa Arrano tabernan

Abenduaren 20an, xake txapelketa izango da Arrano tabernan. Bi finalistek afari bat irabaziko dute Txurruka jatetxean eta irabazleak xake taula bat. Izena emateko Arranora jo abenduaren 15a baino lehen.



**Lakuesta**  
**Optika**  
 Ikusmen arazoaren frogak  
 eta argibideak  
 Parafarmaziako produktuak  
 Santa Ana, 22 C. behea  
 20590 Soraluze  
 T. 943 75 30 59



**MAPFRE**  
**SORALUZE ZERBITZUAK S.L.**  
 Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal  
 Gobelatz, 5-8 Behea  
 20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
 e-mail: [jibarza@infonegocio.com](mailto:jibarza@infonegocio.com)  
 Tlf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
 Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
 FAX: 943 75 16 10



**TXURITXU**  
**zuekin gozatzeko**  
 943 75 24 43  
 SANTA ANA KALEA 22 BEHEA




Merkatu Plaza  
 20590 Soraluze  
 t. 943 75 24 40  
 egunerako arraina eta konjelatuak  
**Juan Mari arraindegia**





# ARGAZKI ZAHARRA



Ifurria: Irati Inurrieta

## MERZEDARIETAKO IKASLE BI

**A**rgazki hau 1966. urte ingurukua da; oin dala 43 urte etaratakua. Argazkixan, amantala jantzitta eta liburuakin daren bi neskatila honek, Itziar eta Mila Gantxegi ahiztak dira. Garai hartan, 11 urte inguruko adina eukiko zeben eta Merzedarietako eskolan etaratakua da. Merzedarietako eskolia, gaur egun, Atxuriko parkia dagan lekuan zeguan, zaharren egoitza azpitan dagan parkian. ☞



**HNOS. BENITO  
ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



**SAN ANDRES  
ITURGINTZA**

Iturgintza, gasa,  
eta berogailuak  
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea

T. 943 75 16 46



**MENDIZABAL  
okindegia**

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Balategieta 6  
T. 943 75 13 99

SORALUZE

**GILA TABERNA**

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**



ERRABAL KALEA 15

T. 943 75 18 34



**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Errekalde 21  
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06

T. 943 75 16 00

F. 943 75 24 61

**Ion Murgizu Pinturak**

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea



**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozetu  
giro euskalduna eta sanua



*Disenua eta Lormena*

Poligono Amillaga, n° 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak

**Kontulan  
Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarateak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tifonaa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA



**MARI MAR  
HARATEGIA**

*Gurean  
Euskal Herriko  
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02  
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

**GAZTELUPE  
taberna**

tel: 943 75 20 81



Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGO  
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbeberia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2

T. 943 75 16 13



Eraikitzen hasita. Azken etxebizitzak.

Soraluzen



**22 ETXEBIZITZA ETA GARAJE**

Soraberri Promozioak Informazioa: **689 420 761**

Eraikitzailea: Egaralur [www.egaralur.net](http://www.egaralur.net)



*lehenengukak...*

KROKETAK (1)	0'20 €
URDAIAZPIKO IBERIKOIA	12'00 €
FRITO NAHASIAK	4'40 €
FOIE ETXEAN EGINA	6'50 €
ENTSALADA NAHASIA	3'80 €
ARRAIN ZOPA	3'00 €
SALDA	1'00 €
PIPER BETEAK (1)	1'50 €

*arrainak...*

BAKAILUA PIL-PIL ERARA	10'00 €
BAKAILUA BIZKAITAR ERARA	10'00 €
LEGATZ FRIJITUA	7'00 €
LEGATZ SALTSAN ALMEJEKIN	10'50 €
TXIPIROIAK TINTAN	9'00 €

*haragiak...*

MINGAINA SALTSAN	3'50 €
KARRILLERAK ARDO BELTZETAN	9'00 €
ESKALOPEA	4'00 €

*postreak...*

GAZTA TARTA	2'50 €
HOJALDRE TARTA	2'50 €
SAN MARCOS TARTA	2'50 €

**GABONAK DIRELA ETA GURE ESKEINTZA ZABALAGOA EGITEA ERABAKI DUGU**

**HAUEK DIRA GABONETAKO PLATER BEREZIAK:**

**Itsaski nahaskia**

*Salpicón de marisco* ..... 7'50

**Arrain pastela**

*Pastel de pescado* ..... 3'00

**Zapoa amerikar erara**

*Rape a la americana* ..... 16'00

**Rodabalo solomoak saltsa eta almejekin**

*Lomos de rodaballo con salsa y almejas* 16'50

**Bakailuz beteriko piper gorriak**

*Pimientos rojos rellenos de bacalao* ..... 1'50

**ENKARGUAK EGITEKO**

Abenduak 24rako abenduak 21

**AZKEN EGUNAK:**

Abenduak 31rako abenduak 28

**TXURRUKA  
JATETXEA**